

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren 49. urteurrenaren aldeko Adierazpen Instituzionala

2025eko otsailaren 27an, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) sortu zeneko 49. urteurrena ospatzen da. Urteurren hau itxaropen eta erronka berrituekin dator autodeterminaziorako eta independentziarako eskubide besterenezinaren alde borrokan jarraitzen duen saharar herriarentzako.

1976az geroztik, RASD erresistentzia- eta duintasun-ikurra izan da okupazioaren eta erbestearen aurrean. Ia mende erdi geroago, saharar herriak erronka larriei aurre egiten jarraitzen du, besteak beste, bere lurraldearen legez kanpoko okupazioari, eremu okupatueta giza eskubideen errepresioari eta baldintza prekarioetan kanpamenduetan errefuxiatutako milaka pertsonaren egoerari.

Azken urtean, ordea, saharar herriak garaipen historikoa lortu du Europako auzitegietan, Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak sahararren baimenik gabe (bere ordezkari Fronte Polisarioaren bitartez) ustiatzea legez kanpoko delat berretsi baitzuten.

Epai hori ez da legezko garaipena soilik, Marokok egindako espoliazio sistematikoaren aurrean justiziarako urrats erabakigarria ere bada, energia berriztagarriko eta jasangarritasuneko proiektuak sustatzen baititu, hala nola parke eoliko eta eguzki-plaken orube handiak eraikitzea Mendebaldeko Saharan, klima-konpromisoaren adibide gisa aurkeztuz. Hori guztia saharar herriaren baimenik gabe. Krisi klimatiko globalak neurritz kanpo eragiten die populazio ahulenei, horien artean saharar herriari. Saharar errefuxiatuek muturreko tenperaturei, ur eta baliabide eskasiari aurre egin behar diete Tindufeko kanpalekuetan; lurralde okupatueta Marokok "Greenwashing" edo "zuriketa berdea" egiten duen bitartean, ingurumena eta saharar herriaren eskubideak kaltetzen dituzten erauzketa- eta harrapari-praktikak makillatzen saiatzen delarik.

Fronte Polisarioaren jarrera irmoa txalotzen dugu NBEko Idazkari Nagusiaren Mandatari Pertsonalaren, Staffan de Misturaren, lurraldea zatitzeko proposamena errefusatu duelako. Mendebaldeko Sahara zatitzeak nazioarteko zuzenbidea urratzeaz gain, bateraezina da saharar herriaren autodeterminazioaren eta subiranotasunaren printzipioekin.

Saharako gazteak eragile estrategiko bihurtu dira gatazkan, ekimen sozial, kultural eta politikoak gidatuz eta erresistentzia bizirik mantenduz ezbehar handiko testuinguru batean. Sormena, erresilientzia eta determinazioa funtsezkoak dira askatasunean eta justizian oinarritutako etorkizuna eraikitzeko, eta azpimarratzekoa da elkartruckerako, ahalduntzeko eta lidergoan, giza eskubideetan eta iraunkortasunean prestatzeko ekimenak sustatzearen garrantzia.

Horregatik guztiagatik:

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa saharar herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra dela, NBEk eta nazioarteko komunitateak halakotzat aitortua.

SALATZEN dugu marokorrek Mendebaldeko Saharan duten presentzia legez kanpoko delat eta nazioarteko arauak urratzen dituen okupazioa dela, eta Maroko dela lurralde okupatuan giza eskubideen urraketa larrien erantzule zuzena.

EXIJITZEN DUGU Nazio Batuek Mendebaldeko Sahararen banaketa aurreikusten duen edozein proposamen baztertzea eta, horren ordezt, saharar herriaren autodeterminaziorako erreferendum aske, justu eta behin betikoa bermatzeko bere agindua betetzea.

ESKATZEN DIOGU Nazio Batuei MINURSOren agintaldia zabal dezala lurralde okupatueta giza eskubideen zaintza sartzeko eta Mendebaldeko Saharako errelatore berezi bat berehala izenda dezala sustatzeko.

EXIJITZEN DUGU preso politiko saharar guztiak berehala aska ditzatela eta giza eskubideen aldeko ekintzaileen aurkako jazarpena eta torturak bertan behera utz ditzatela.

USTE DUGU onartezina dela Marokok Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzen jarraitzea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiekin kontraesanean, eta eskualdean jarduten duten enpresei nazioarteko zuzenbidea errespetatzeko eskatzen diegu.

SALATZEN DITUGU Marokoko erregimenak dituen «greenwashing» estrategiak eta ingurumen-proiektuak legez kanpoko okupazioa sendotzeko tresna gisa erabiltzea, ingurumenaren eta saharar herriaren eskubideen kontura.

EXIJITZEN DUGU Espainiak, *de iure* Mendebaldeko Saharako potentzia administratzailea den aldetik, ofizialki baliogabetzat jo ditzala 1975eko Madrilgo Akordioak, eta jarrera aktiboa har dezala saharar herriaren autodeterminazio-eskubidearen defentsan.

ESKATZEN DIEGU NBEko Segurtasun Kontseiluari eta Afrikako Batasunari ahaleginak areagotu ditzatela gatazkari irtenbide bidezkoa eta behin betikoa emateko, nazioarteko zuzenbidearekin eta NBERen ebazpenekin bat etorritz.

BERRESTEN DUGU sahararrentzat bidezko konponbidea ez dela soilik justizia historikoko ekintza bat, baizik eta funtsezko ekarpena Afrikako iparraldeko eskualdean egonkortasuna eta bakea lortzeko.

Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan dauden familia sahararrekiko gure elkartasuna ADIERAZTEN DUGU, bai eta lurralde okupatueta daudenekiko ere, eta eskerrak ematen dizkiegu saharar herriaren askatasunaren alde era nekaezinean lan egiten duten elkarteei eta kolektiboiei.

Saharar herriaren justiziarekin, askatasunarekin eta autodeterminazioarekin dugun konpromiso hautsezina berretsiz ospatzen dugu 49. urteurren hau, eta nazioarteko komunitateari bidezko kausa horrekin bat egin dezan dei egiten diogu.

Sahara aske baten alde, justizia klimatikoaren alde eta saharar herriaren duintasunaren alde.

.....n, 2025eko otsailarenn